

TALDE LANA: «ELEBIDUNTASUNAZ» IN TANTAK-12, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, 1994, 141-235 ORR.

Joxe Manuel Odriozola
Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea

Duela lau bat urte UPV/EHUko Psikologia eta Hezkuntz Zientzien Fakultateetan ikertzaile-talde batek hizkuntz garapena aztertzeari ekin zion. Hitz hauekin hasten da ikerketa-lan honen gogoeta bidea. Jarraian bertan, bestalde, honako zehaztapen hau datorkigu: «Horrela **elebitasun**egoera tresna nahasi eta esanahigabeak aurre eginez **elebiduntasuna** neurtzeko tresna diseinatu eta burutu zuten, **Elebiduntasunari Buruzko Testa (EBT)** behin eratu eta gero, bi urtetan zehar datu-bilketari lotu zitzaiei».

Atarikoarekin amaitu aurretik azal ditzagun banan-banan artikuluko-sorta honen aleak. Bildutako datuen inguruan garatuak ditugu honako hauek: *Elebiduntasunari buruzko testaten bidez lortutako datuen azterketa kuantitatiboa* (Elosua Oliden, P.; Lopez Jauregi, A.; Artamendi Arrizabalaga, J.A.); *Elebiduntasun-mailaren garapena eta berau mugatzen duten aldagai soziolinguistikoak eta psikologikoak Oinarrizko Heziketa Orokorreko ikasle elebidunengan* (Balluerka, N.; Vergara, A.; Gorostiaga, A.) eta *9-14 urte bitarteko neska-mutulek ekarritako hiztegiaren azterketa* (Yenes Conde, F.; Erriondo Korostola, L.; Isasi Balanzategi, X.).

Horien ondoan, eta horien oinarritzko euskarri teoriko gisa, beste artikuluko pare hau dator talde-lan honen emaitzetan: *Eskola-hizkuntza(k) eta hizkuntz ordezkapena* (Isasi Balanzategi, X.) eta *Hizkuntza, pentsamendua eta kultura* (Olabarrieta, F.).

Antza denez, artikuluko sail honen emaitzek ez dute erabat ahortzen egindako datu-bilketaren uzta. Guztiarekin ere, egileen esanei bagagozkie, hemen aurreratzen diren lehendabiziko hipotesi eta egiaztapenok aski zantzu oinarrituak eskaini dizkiete ikerlariari. Hitzez hitz adieraziko dugu beraien ustea: «Egoeraren **argazki** berri bat izateko lain direla uste dugu. **Elebiduntasun-Indizeak** eta neska-mutikoek emandako hitz-kopuruak nahiko esanguratsuak badira, ikasleek eurek ekarritako hiztegiaren azterketak dakarkigun gogoetak ez dira gutxiagorako».

Sarrerako oharren artean «kritikatxo» bat: artikuluren batean edo bestean euskara ez bide da behar adina zaindu. Inoiz esaldi trakets samarren aurrean gaudela dirudi. Beste inoiz, berriz, ulergaitz egiten dira esaldi batzuk. Ea hurrengoan euskararen atala arretatsuago orraztua ateratzen den. Eta kritikarekin abiatu garenez, autokritikak ere ez digu gaitzik egingo: zer ote da aldizkari honen hamabosgarren zenbakian ene lanean ageri den «filologeria» hori? Atzizki gaitetan adituak diren gure euskaltzainek ikusten badute!

Hori eta horrenbestez, has gaitezen lan bakoitzaren xehetasun batzuk azpimarratzen. Hasteko neure baitan obsesio gisa bizi izan dudan hizkuntzaren izaera: alegia, hizkuntzaren izaera murrizt ote daiteke giza komunikazioaren harian betetzen duen «tresna» kontzeptura? Mitxelenaren jarraitzaile askok (Villasante...) definizio hori gogo-betekoa badute ere, ez dirudi batere zehatza eta zorrotza denik kontzeptu hori bere bakar-soilean. Hona zergatiaren muina Isasiren eskutik aurkeztua: «*Hizkuntza, pentsamenduaren garapen harian momentu jakin batetik aurrera, tresna formala bilakatzen da, kultur ondarearen ikasbidea bai, baina kontzeptuaren egituratzailea eta arrazonamenduaren euskarria ere. Edozein hizkuntza **komunikazio-tresna** hutsa bailitzan definitzea eta horretara mugatzea, norbanakoaren garapena alderdi horretara mugatua nahi izatea bezalatsu da. Adierazi moduan, hizkuntza ez da soilik komunikaziorako erabiltzen, emozioetan, pentsamenduaren garapenean eta ihardueran besteak beste erabili beharrekoa baita. Ikuspegi osoa eta integrala ezinbestekoa da».*

Hizkuntzaren izaera, hain tresna hutsaren mailako auzia izan balitz, ez zen seguruenik gertatzen den bezain korapilotsua izango. Hizkuntz ordezkapena ezin dugu aditu gure arteko hizkuntz ideologia nagusiaren arabera: hizkuntza bat kendu, eta hura dagoen lekuan, tresna mekaniko eta ase-

tikoa bailitzan, beste bat ezarri. Hori ez da sekula horrela izan, eta ez da izango ere: hizkuntza-edukiaren konnotazioak gizatasunaren eremu asko ikutzen eta eragiten ditu beronen jokamoldean.

Isasiren lanean bada beste gauza aipagarrikeri ere. Eta txit argigarria da hiztun-subjektuaren hautu «askean» sinesten dutenentzat: ohartuko ote dira hauek, ondorengo lerroondoan datorren legez, hiztunaren gorabeherak zorrozk baldintzatuak daudela ukipen egoerak sortarazten duen asimetria? Hiztunaren mintzaira-gaitasuna, neurri batean gizabanakoaren esku dagoen hori, lege orokor nagusien eskuko ageri zaigu. Ikus: «*Hizkuntzen arteko ukipen-egoerak dakarren asimetriak, hizkuntzen arteko funtzio-esparru banaketa asimetrikoa izanagatik, ezin uler dezakegu hiztun guztiak linguistikoki asimetrikoak direnik nahiz gehienok gizarte-mailako asimetriak eraginda, horrekiko joera izan*».

Orobat, biziki jakingarri da hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko garapen-erlazioei dagokien auzia. Bi horiek elkar atxikirik egotekotan, izan ere, ondorio larriak izan ditzake hizkuntzaren garapen egokirik ezak; demagun, Isasik arakatzen duen eskola-hizkuntzaren garapen-maila dela eta, eskolaumeen euskara-gaitasun orokorra. Ez soil-soilik hizkuntz kode informalar dagokiona; erregistro jaso-landuaren ekoizpena noraezekoa izango baita eskolaumearen hizkuntz garabidean. Hona, besterik gabe, Isasiren itauna: «*Zertan eragiten du, bada, **eskola-hizkuntzak** pentsamenduaren garabidean?*». Erabateko ihardespentik ematea gaitza omen da; baina, hala ere, betoz baieztapen egiaztagarriok: hitzezko pentsamendua jatorrizko hizkuntzaren garapenari loturik dator (horra ama-hizkuntzaren garrantzia); nerabezeroaren atarian kontzeptuzko pentsamendua agertzen denean, hizkuntzaren kode formalaren esaneko agertzen zaigu pentsamendu kontzeptuaren garabidea. Batezbestekoan zera esateko moduan omen gaude: «*Orokorrean **hitzezko pentsamenduaren** garapena, hizkuntzaren garapen-mailan bertan antzeman daiteke. Hots, zenbat eta hizkuntza landuagoa eta aberatsagoa izan, orduan eta pentsamendu landuagoa eta aberatsagoa izaten dela eman dezakegu*». Eta eskolaumeak elebidunak direnean zer gertatzen da? Horretarako ere badugu erantzuna: «***Jatorrizko elebidunen** kasuan **kontzeptua** eskola-hizkuntzaren arabera definitzen da ere. Horrek defini dezake neurririk handienez hiztun horien hizkuntz portaera, hizkuntza batekiko edo besteekiko joera hain zuzen ere*».

Isasirekikoa amaitzeko arestian planteatu dugunari erantzuna: zertan da alegia eskolaume euskaldunen (Urola eskualdekoena, adibidez) euskarazko pentsamendu kulturaren garapen-maila? Atzeak erakusten omen du aurrea nola dantzatu; auzi honetan, ordea, alderantziz jazo bide da: eskolaume horien hizkuntz portaerak erakutsiko digu beraien zinezko hizkuntz

gaitasun orokorra. Gakoaren azalpidea honetan datza Isasirentzat: «Horrela azal daiteke gaurko gazte euskaldunen artean, eta oro har euskaldun**eskolatu**en artean ere, ematen den erdararekiko joera behagarria beren hizkuntz portaeran. Hor-taz hainbat gurasok eta irakaslek somatutako **erdararen beharra** kultur hizkun-tza beharra baino ez da». Nolanahi ere, euskara-gaitasunaren auzi honek mar-ka guztiak hausten digu gurean; euskalduntzat dauzkagun hiztunen artean ere, nahiz eta euskaraz eskolatuak izan, ez bide da kultur pentsamendua garatzeko aukerarik sortzen. Beldur ginen eta orain beldur horren egiazta-pena berretsi du ikerketa honek: «Arazoa ez da ikasle erdaldunek euskal hitzu-nak izateko behar den euskara-maila lortzen ez dutenik, hori aski frogaturik baitago, arazoa are larriagoa da, euskaldunek ez dutela euskara bera pentsamenduaren lana-besa eta eskola-tresna behar adinako mailaraino eramater».

Olabarrietak hizkuntza, pentsamendua eta kulturaren arteko dialektika jo-rratzen digu. Horren katramilatsua den auziaren inguruan «arazo teoriko batzuk azalduko» dituela dinosku. Eta lan horretan barrena jarduteko autore klasikoen bideari darraio: John Watson, Sapir, Whorf, Chomsky, Piaget... Besteak bezalaxe, Olabarrietak ere Vygotski-ren tesiak hartzen ditu gidari-tzat auzi honen gorabeherak tratatzeko. Bielorrusian jaio eta hain bizitza laburrean ikerketa harrigarriak egin zituen autore honen esanei jarraiki ho-nako iruzkin hauek egiten dizkigu haren liburu batetik *Pentsamendua eta Hizkuntza* (1934): «Hizkuntza eta pentsamenduaren erlazioa ez da bat eta bera iza-ten haurtzaroaren garapen harian. Hasieran, bizitzako lehenengo bi urteetan gutxi gora-behera, sorburu desberdinetakoak izaki, bata bestearen alboan baina indepen-dienteki garatzen dira. Gero, une jakin batetik aurrera, bateratu egiten dira hizkun-tzaren eta ezagutzaren giza garapen espezifikoak eratuz».

Psikologia dialektikoaren haritik, «sozio-kulturaltzat nahiz sozio-historikotzat eman ohi da Vygotski-ren teoria». Planteamendu teoriko egokia deritzogu eus-kararen garapena behar bezala begiz jotzeko: euskararen zoria eta etorkizua arazo linguistikoa ez den bezanbatean, elementu kulturalen eragina eza-gutzea noraezekoa izango dugu. Kultura, beti ere, zentzurik zabalean har-tuta, eta ez etnikotasunaren ondare-gisa. Zentzu horretan Olabarrietaren hitzok adi hausnartzekoak iruditzen zaizkigu: «Kultura edo zehatzago kultur testuinguruak, beste alderditik, neurri batean haurren garapen orokorra mugatzen duelarik pentsamendua eta hizkuntzaren garapena mugatzen du ere». Urola beza-lako eskualde euskaldun batean, derrigorrezko irakaskuntzaren goi-maile-tan, zergatik nabari dira euskal gaztetxoaren artean nabari diren euskara-de-fizitak? Zeri zor dio euskara kultur hizkuntza moduan pentsamendu lan-duaren alorrean umezurtz egoteak? Inondik ere, aurretikako baldintzarik ezak euskarazko mundu sinboliko formalaren garabidean gabezia larriak sortzen dizkigu. Mundu sinboliko formalaren harrobiak, hots, aurretikakoak

huts egiten digu: «Horrela belaunaldiz belaunaldiko gizartearen bilakaerak norbakoaren garapenerako aurretikakoak ezartzen ditu».

«Elebiduntasun-mailaren garapena eta berau mugatzen duten aldagai soziolinguistikoa eta psikologikoa oinarrizko heziketa orokorreko ikasle elebidunengan»: horra Balluerka, Vergara eta Gorostiagaren eskutik jorratutako beste ikergai bat. Zertzeladatan jarduteko lekurik ez dugunez, ondorio orokorren atalera joko dugu zuzen-zuzenean. Eta hemen, oroz gain, honakoa nabarmendu nahi nuke: eskualde euskaldun bateko irakasteredu euskaldunaren (D irakasteredua) epez-epeko ondorio-emaizak. Begira zer dioten: «*Elebitasuna behe mailatan, OHOk 4. eta 5. mailatan, alegia, gazteleraz gaitasun urria erakutsiz garatzen hasten da. OHOk 6. mailan bi hizkuntzen arteko oreka lortzen da eta OHOk 7. eta 8. mailatan, berriz, gazteleraren nagusitasuna nabarmena da*».

Diglosia kontzeptua zentzurik zabalenean hartuta, aitor dezagun, euskal elebidunak ere erabilera diglosikoa egiten duela bere ama-hizkuntzarekikoan. Euskararen egoera, **korpusari** dagokionez, osagabea izatean batetik, eta bere status sozialaren hierarkian gizarte-rol arruntetara murrizturik egotean bestetik, euskal hiztunaren praxi linguistikoa erabat desorekatua egotea dakar ondorioz. Erabilera-eremuen konpartimentazioak hori seinalatzen digu behintzat: «*Honela, euskara funtsean elkarrizketa-giroan erabiltzen den hizkuntza bezala hauteman litekeen bitartean, gaztelerari goi-mailatan egokiro moldatu ahal izateko baliagarri diren hizkuntzen funtzioak atxekitzen zaizkiola dirudi*».

Beste hirukote bat (Elosua, López eta Artamendi) honako ikergai honi loturik datorkigu: *Elebiduntasunari buruzko testaren bidez lorturiko datuen azterketa kuantitatiboa*. Lan honetarako D ereduko 1.119 ikasle eta A ereduko 1.066 erabili dituzte. Ikasle hauen jatorri linguistikoaz, berriz, xehetasun hauek aletzen dizkigute: A irakastereduko ikasleen gurasoak, gehien gehienak, erdaldunak dira (%88); D irakastereduko kasuan, aldiz, %6,3 izan ezik, biak edo bietako bat euskalduna da.

Eskolaumeon hizkuntz gaitasuna neurtu ondoren, jarraian ezarriko ditugun emaitzetara bildu dira hizkuntza batean zein bestean gaitasun-maila horren zer nolakoak:

«-OHOk 7. ikasmila arte A ereduko haurren gaztelerazko ekoizpena D eredukoena baino handiagoa da. Zortzigarren ikasmilan ordea, gazteleraz azaltzen den maila, berdina da bi ereduetan.

-Euskarazko ekoizpena aldiz, beti da handiagoa D ereduko artean. A ereduan euskararen ezagutza urria isladatzen da. Hizkuntza honek ez du inolako bilakaerarik

aztergai izan diren 5 ikasmailetan.

-Euskararen garapenerako baldintza hoberenetan ere (inguru oso euskalduna eta D eredu), gaztelera da OHOk azken bi urtetan nagusitzen den hizkuntza.

-Nesken euskarazko ekoizpena mutilena baino handiagoa da, ez ordea gazteleraz, zeina berdina den. Desberdintasun hau azkarrago antzematen da A ereduko nesken gan (OHOk 5. ikasmaitatik aurrera) D eredukoengan baino (OHOk 8. ikasmaita)».

Beraz, B irakasteredua alde batera utzi da, muturretan dauden A eta D eredu arteko jarraipen-harian. A irakastereduko emaitzen berri ematerakoan, orain berriro ere, zera berretsi ahal izan da: «Hizkuntza honek ez du inolako bilakaerarik aztergai izan diren 5 ikasmailetan». Zenbagarrena ote da ikerketa hau? Antzeko gauzak egiaztatu ahal izan dira guzti-guztietan. Hala ere, gure Hezkuntza Kontseilariak, ez bide zeukan argi emaitzon egitasuna eta beste bat egiteko eskatu die teknikoei. Noiz arte betidanik argi egon dena argitzen jarraitzeko aitzakia hori?

Azkenik, eta hau ere hirukote baten (Yenes, Erriondo, Isasi) emaitza dugu, ikasleen hitz ekoizpena ikergai duen lana dator: 9-14 urte bitarteko neske-mutilek ekarritako hiztegiaren azterketa. Lan honetarako erabili duten prozedura hitz hauekin azaltzen digute: «Erabilitako **testan**, neska-mutikoei, jarritako **hitz estimulu** jakin baten aurrean hiru minututan gogora zetozkien hitzak idatzi behar zituzten. **Hitz estimuluak** zekarkien edozein hitz, baina beste hizkuntzan».

Euskararen higadura aski nabarmen islatzen da hiztegiaren alor honetan. Harako hark zioen eran, oraingo umeentzat egazti txiki guztiak «txoriak» dira: jadanik ez dago txepetxik, enararik, txolarrerik, gardantxilorik... Errealitatea, edozein alorretakoa delarik ere, ez da euskal betaurrekoz ikusten, erdal mentalitateaz baizik. Har dezagun, esaterako, animalien mundua: «Harrigarria da euskaraz emandako animalia izenen kopurua gazteleraz emandakoaren erdia ere ez izatea (%49). Are harrigarriagoa D eredukoak nekazal girokoak eta A eredukoak kale-girokoak direla kontutan hartzen badugu. Behatutako desberdintasunak azaltzeko, euskarak pairatzen duen gutxiagotzeari heldu behar diogu berriro ere. Horrek eta ez besterik azal dezake D eredukoek eurek, gazteleraz euskaraz baino gehiago eman izatea».

Euskañolaren indarra gero eta sakonago da eta euskal elebidunen aho-lumetan. Erreferente guztiak, edo ia guztiak, batez ere kultura mailan, erdaratikoak ditugunez, euskaldunaren garai bateko etorria eta sena ajeak jota dago. Interferentzien uhinak, bestalde, aspaldi gainditu zituen gramatikaren eta

hiztegiaren sailak; aspaldi honetan euskal sintasi eta semantikaren barrunbeak astinaldi bortitzaren mendeko dira. Zertan datza, beraz, euskarren «normalkuntza»? Aurrerapen kontuak ez al ditugu erabat zentzu kuantitatiboan hautematen, elebidunaren euskara-gaitasuna errotik pipiak jota dagoenean? Hiztegiari dagokionean hala ematen du. Gureak ez bide du antzik egoera normalduaren irudiarekin: «Euskarak *Dereduan gaztelerak lortzen dituen antzeko emaitzak lortu beharko lituzke. Desoreka, ordea, oso handia da oraingoz. Ez kuantitatiboki ezta kualitatiboki ere euskarak ez du lortzen egoera normalizatuari (A ereduan gazteleraren kasu) legokiokeen minimorik*».